

6 mantangorri



AZOKA



LIBRUAK

Izenburuak: ‘Munstro handiek ez dute negar egiten’ eta ‘Ez! dio Munstro Txikik’. **Egileak:** Kalle Guettler, Rakel Helmsdal eta Aslaug Jonsdottir. **Marrazkiak:** Aslaug Jonsdottir. **Itzultzalea:** Garbiñe Ugarte. **Orrialde kopurua:** 30na orrialde, koloretan. **Argitaletxea:** Sushi Books.



Garbiñe Ugarte

ITZULTZAILEA

«Gureak munstro maitagarriak dira, baina argi ibili! Haserretuz gero...»

Bi munstro: Munstro Handi eta Munstro Txiki. Umore onekoa, eskulanetan trebea eta adar jotzailea bata; bihurri samarra bestea. Elkar zirkatzen jardun arren, banaezinak eta maitagarriak dira biak.

Bi dira liburuen protagonistak: Munstro Txiki eta Munstro Handi. Nolako da Munstro Txiki?

Munstro Txiki beti dago umore onez; marrazkilari trebea da, eta eskulanak ezin hobeto ateratzen zaizkio beti. Munstro Handiri adarrak jotzen dio behin edo behin, baina bihotz onekoada, eta badaki batzuetan Munstro Handiri laguntza eskatu behar diola.

Eta Munstro Handi?

Munstro Handirekin ezinezko da aspertzea: beti dabil bihurrikeriaren pentsatzen. Hark ere askotan egiten dizkio ankerkeriak bere lagun Munstro Txikiri, baina badaki bere laguna txikia izan arren ondo tratatu behar duela.

Elkarrekin ondo ematen al dira?

Bai, jakina! Elkarri barrabaskeria ederrak egin arren,

ikasi dute sentimenduak azaltzen, eta, horri esker, batak besteak sentitzen duena ulertzen du.

Irakurleak ez du beldurrik pasatuko munstroekin, ezta?

Ez, gureak munstro maitagarriak dira, baina argi ibili! Haserretuz gero, batek daki zer egiteko gai diren...!

Munstroek ere sentimenduak al dituzte?

Munstroak eta gizakiak ez gara hain ezberdinak: haien gu baino apur bat iletsuagoak dira, besterik

ez. Ile horren guztiaren artean, sentimenduek ere badute txokoa.

Liburueta batean Munstro Handik negar egiteko gogoa du.

Ziur gaude munstro handi guztiak negar egiteko gogoa eduki dutela inoiz, baina askok uste dute munstro handiek ezin dutela negarrik egin. Munstro Handik era-baki bat hartu beharko du gai honen inguruan.

Beste liburuan, Munstro Txiki da ‘ez’ esatera ausartzen ez dena.

Zaila da batzuetan ezetz esatea, eta are gehiago munstro txiki batentzat. Oraingoan, Munstro Txikik hartu beharko du erabaki bat.

Zergatik gomendatuko zenuke bi liburu hauek irakurtzea?

Adin guztiako irakurleei sentimenduak ulertzen eta azaltzen lagundu ahal dietelako era dibertigarri batean eta pertsonaia maitagarri batzuen bidez.



LIBURA ‘Gaueko sukaldean’

Entzun duzue inoiz Mikelen istorioa? Nola gauean zalaparta bat entzun zuen eta oihukatu zuen «isil zaitezte!»? Eta iluntasunean barrena murgildu zela, biluzik, gaueko sukaldearen argitasunean erori zen arte? Eta han, guk goizean opilak jan ahal izateko eguna argitu arte lanean dihardutengozogileekin topo egin zuela? Ez duzue kontakizuna ezagutzen, ezta? Orain duzue, bada, Mikelen istorioa ezagutzeko aukera ederra liburu honekin.

Maurice Sendak

Argitaratzailea: Kalandraka eta Pamiela



IPUIN INTERAKTIBOA

‘X-Zatiketak bidertuz’

Hatzekin irakurtzeko ipuin interaktiboa. Haur baten gurasoen banantzearekin hasiko da istorioa, zatiketa batekin. Bainazatiketa horrek biderketak ekarriko ditu berehalan. Familia eredu ezberdinaren inguruko hausnarketa da ipuinaren muina. Irakurri ez ezik, jolas egiteko eta elkar eragiteko aukera anitz izango ditu irakurleak. Google Playn (Android) eta App Marketen (iOS) eskura daiteke.

Android eta iOS

Argitaratzailea: Luul